


Ángel Peris Cuestaren erakusketa berriak naturarekin elkarrizketa edukitzeraz gonbidatzen gaitu, artearen bidez

Figuratiboaren eta abstraktuaren arteko dantza da Ángel Peris Cuesta artistak (Valentzia, 1993) Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxera lehen aldiz ekarri duen proposamena. Atzera begirako erakusketa bat, non Perisek ekialdeko eta mendebaldeko paper, teknika eta tresna tradizionalen konbinazioekin esperimentatzen duen.



Donostia, 2023ko irailaren 20an.- [Naturarekin elkarrizketa](#) erakusketak atzera begirako izaera nabarmena du, Peris Cuestak azken ia 10 urteetan (2014-2023) egindako lanaren eta obren zati handi bat biltzen baitu, batez ere Txinan eta Espainian eginiko hainbat proiektutan. Eta ia soilik paperezko pieza eta obrekin egiten du, "ikerketa bitarteko eta bere lanaren oinarri nagusi gisa, neurri handi batean tinta txinatarra eta pigmentu mineralak erabiliz". Artista valentziarra artista egoiliar gisa izan zen Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan, eta azaldu duenez, erabiltzen dituen materialak "oso gordinak" dira, eta material horiek ahalik eta gutxien manipulatu saiatzen da, "materiala bera izan dadin obrari forma ematen diona". Horrela, materialek irudiak sortzen dituzte eta berak inguruneak eta eszenografiak sortzen ditu.

Bere "Tintazko gorpuak" lanean, adibidez, Ingurumen Baliabideen Zentroko aretoetako batean, artistaren asmoa izan da "paperei beren kabuz hitz egiten uztea, hitzik gabeko elkarrizketa bat beste izaki bizidun batekin, paperarekin, alegia". Bertan, mota desberdinetako paperen konbinazioari esker, elkarren artean ukitu daitezke uraren eta tintaren laguntzaz, eta horrek elementu iraunarazle gisa funtzionatzen du. "Gustatzen zait haien arteko desberdintasunek orban horiek sortzea", gehitu du artistak. Izan ere, aitortu du asko interesatzen zaiola Europako, mendebaldeko paperak, batez ere kotoizkoak, kalamu edo xuan paper txinatarrekin konbinatzea, eta, horrez gain, "kaligrafia txinatarren tresna eta teknika tradizionalak, pintzel txinatarrek, beste kultura batzuetako kaligrafiaren tradizioetako tresnak, hala nola lumatxo estilografikoa edo errotuladoreak" erabiltzea, landare-motiboak marrazteko.

Hala ere, Peris Cuestak gogoratzen du bere obran ere badaudela "lan abstraktuak, irudikatzen asmorik gabeak", baina naturako elementu asko gogorarazten dituztenak,

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus



hala nola, naturak harearen edo arroken gainean inprimatzen dituen urratuak, orbanak eta testurak. *"Dantza bat dago figuratiboaren eta abstraktuaren artean, esandakoaren eta zalantzan dagoenaren artean"*.

Naturekin elkarrizketa erakusketaren irekiera ekitaldia irailaren 21ean, ostegunean, izango da, 13:00etan, artistak berak egindako bisita gidatu irekiarekin. Inaugurazioaren ondoren, Peris Cuestak esku-hartze bat egingo du Cristina Enea jauregiko lurpeko galeriaren sabai-leihoetan, Donostiako ingurune naturaletan bildutako lurrekin. "Lurra lurraren barrura itzultzea bezala izango da".

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa




ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:



La nueva exposición de Ángel Peris Cuesta invita a dialogar con la naturaleza, a través del arte

Una danza entre lo figurativo y lo abstracto, en la que los ojos del visitante conversan con los diferentes estadios de la naturaleza es la propuesta que el artista Ángel Peris Cuesta (Valencia, 1993) trae por primera vez al Centro de Recursos Medio Ambientales. Una exposición con tono retrospectivo donde Peris experimenta con combinaciones de papeles, técnicas y herramientas tradicionales orientales y occidentales.



Donostia / San Sebastián, 20 de septiembre de 2023.- La exposición [*Diálogo con la naturaleza*](#) cuenta con un marcado carácter retrospectivo, ya que recopila gran parte del trabajo y las obras que Peris Cuesta ha elaborado durante los últimos casi 10 años (2014-2023), en diferentes proyectos mayoritariamente entre China y España. Y lo hace casi exclusivamente con piezas y obras en papel, como *"medio de investigación y base principal de su trabajo, utilizando en gran medida tinta china y pigmentos minerales"*. El artista valenciano, quien acudió como artista residente al Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera, explica que los materiales que utiliza son *"muy crudos"*, los cuales intenta manipular en la menor medida posible *"para que sea el propio material lo que da forma a la obra"*. Así, los materiales producen las imágenes y él genera entornos y escenografías.

En su obra 'Cuerpos de tinta', por ejemplo, que ocupa una de las salas del Centro de Recursos Medio Ambientales, la intención del artista ha sido *"dejar que los papeles hablen por sí solos, un diálogo no verbal con otro ser vivo, que es el papel"*, donde la combinación de distintos papeles de distinta índole permite que se toquen entre sí con ayuda del agua y de la tinta, que sirve como elemento perpetuador. *"Me gusta que sus diferencias generen estas manchas"*, añade el artista. No en vano, reconoce que le interesa mucho combinar papeles occidentales europeos, principalmente de algodón, con papeles chinos de cáñamo o de xuan, además de utilizar *"herramientas y técnicas tradicionales de la caligrafía china, pinceles chinos, herramientas de tradiciones de la caligrafía de otras cultura, como la plumilla estilográfica o los rotuladores"*, para dibujar motivos vegetales.



Sin embargo, Peris Cuesta recuerda que en su obra también hay *"piezas y trabajos abstractos en la falta de intención representativa"*, pero que recuerdan a muchos elementos de la naturaleza, como los rasgados, las manchas y las texturas que la naturaleza imprime sobre la arena o las rocas. *"Existe una danza entre lo figurativo y lo abstracto, entre lo dicho y lo entredicho"*.

La exposición **Diálogo con la naturaleza** se inaugurará este jueves 21 de septiembre, con la apertura del espacio a las 13:00 h. Y una visita guiada abierta llevada a cabo por el propio artista. Tras la inauguración, Peris Cuesta realizará una intervención en los tragaluzes de la galería subterránea del palacio de Cristina Enea, con tierras recogidas en entornos naturales de San Sebastián. *"Será como devolver la tierra al interior de la tierra"*.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

